

Udako kanpaina. Urtean zehar landutakoaren emaitza



- EAEko astialdi taldeetako boluntarioek udan ere tinko heltzen diote egin duten lanaren bitartez udako eskaintza zabala eskainiz, aurten: **54 elkartek antolatuta 109 ekintza**
- www.astialdiforooa.org eta www.egk.eus atarietan eskegi dute eskaintza.

Bilbon, 2017ko apirilaren 6an. Heldu da hainbeste itxarondako momentua: aurten ere Astialdi Foroko eragileek udako kanpainari hasiera eman diote.

Urtero bezala eskaintza zabala da: hainbat ekintza mota, hizkuntza aukera anitzak, balore hezitzaileez hornituta eta boluntariotzaren filosofiaren oinarrituta. Euskadiko milaka boluntarioek urtean zehar egiten duten lana udan eten beharrean tinko heltzen diote haur, nerabe eta gazteentzat bideratutako kalitatezko ekintza mordo antolatzeari. Aurten Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 54 taldek guztira 109 udaleku eta opor-jarduera ezberdinak jaso dituzte. Guztira 10.000 plaza udaleku, kanpaldi eta bestelako udako ekintzetan murgiltzeko.

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren (EGK) baitan Astialdi Foroan koordinatzen diren federazio eta eskolek proposamen horiek guztiak biltzen dituen gida aurkeztu du gaur, *Udan ere Astialdia astindu!* lelopean. Zerrenda bat aurkeztu dute EAEko lurralde bakoitzeko, antolatzaileen jatorriaren arabera. Zehazki, Araban 10 elkartek 10 ekintza prestatu dituzte; Bizkaian, 39 taldek 77 txanda diseinatu dituzte; eta Gipuzkoan, 11 erakundek 22 plan proposatzen dituzte bertan parte hartzeko.

Ekainaren 23an hasita eta abuztuaren 23ra arte, euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez, 6 eta 30 urte bitartekoentzat, edozeinek parte hartzeko moduko planak daude: udaleku irekiak auzoan edo herrian, kanpaldi klasikoak Euskadin edo Errioxa eta Kantabria bezalako beste toki batzuetan, kanpaleku ibiltariak kostaldetik eta auzolandegiren bat besteak beste.

Balio erantsia duten ekintzak

EAEko hiru lurraldeetako astialdi taldeetako boluntarioek urtean zehar egin duten lanari esker dira posible aukera guzti hauek. Asko soilik taldekideentzako bideratutako ekintzak diren arren urtean zehar murgilduta ez dauden haur eta gazteei ere atek zabaltzen zaizkie programa hauek barrutik ezagutzeko. Hori dela-eta, EGK-k inguru hurbileko bat aukeratzea aholkatzen du. Honela, ikasturtean zehar ere talde horretan parte hartu eta murgildu ahal izateko aukera izango dute gazteek hala nahi izanez gero. Izan ere, erakunde hauek ez dute soilik udan lan egiten: ikasturtean zehar bere auzo eta herrietan buru-belarri aritzen dira ere, behar guztietara egokitzen diren ekintzetan. Honengatik guztiagatik, boluntario gazteek egindako lana

azpimarratu nahi dugu eta kanpaina honen bitartez merezitako aitortpena eskatu: kalitatezko hezkuntza eskaintzen dute eta gizartea eraldatzeko lan egin!

Informazioa: argia eta eskura

Azken urteetan bezala, astialdi taldeak eta izena emateko epeak bilatzaile baten bitartez eskuragarri daude www.astialdiforooa.org helbidean edota eta www.egke.eus atarian PDF dokumentuetan jasota.